



**Ebazpena, 2020ko urriaren 22koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez, izendatzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretako koordinatzaileak. Prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko dira, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere**

---

Hezkuntza sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deitzen dituenak, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere, 5.9 oinarrian xedatzen duenez, "epaimahaiek eta hautaketa-batzordeek koordinatzaileen laguntza izango dute. Hezkuntzako ikuskariak izango dira, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko ditu. Aipatutako hautaketa-organoei koordinazioa eta administrazio-laguntza eskaintzea izango da koordinatzaileen zeregina. Funtzio horien garapenean, prozedura era egokian garatzen dela zainduko dute, eta horretarako epaimahaiekin eta hautaketa-batzordeekin elkarrekin lan egingo dute: orientabideak emango dituzte prozeduraren administrazio-kudeaketaren eta antolaketaren inguruan, proba praktikoa egin eta ebaluazio irizpideak aplikatzeko, etab.; tresnak eskainiko dizkiete, prozeduran zehar gerta daitezkeen zailtasunak edo ezbeharrak ebazteko; laguntza emango diete, epaimahaien lanean, jardueretan eta erabakietan irizpide-homogeneotasuna bultzatzeko, eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatzen lagunduko dute une oro."

Azaldutakoaren arabera,

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Izendatzea Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretako koordinatzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko deitzen dituenak, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere:

Koordinatzaile nagusiak:

Jose Antonio Fernández Gutiérrez  
M<sup>a</sup> Teresa Ruiz López

Arabako lurralde historikoko koordinatzailea:

Alicia Epelde Murguía

Bizkaiko lurralde historikoko koordinatzaileak:

Santiago Díaz de Sarralde Azula  
Jon Simón Gartzia Legarreta

Gipuzkoako lurralde historikoko koordinatzaileak:

Francisco Javier Jiménez Delgado  
María Meijide Bermúdez



**Bigarrena.-** Argitara ematea Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbide hauetan:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» edo, kasuaren arabera, «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura» - «Berriak»

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak/> - «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» - «Epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak»

**Hirugarrena.-** Gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, adierazitako Internet-en helbidetan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 22a

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO**